

# HUMOR CON **H**

UMOREZCO ALBUM  
ILUSTRATURAREN 2. SARIA



# HUMOR CON



**L'HEMATOFESTIK, TRIQUETA ARGITALETXEAEKIN lankidetzan "HUMOR CON H" antolatu du, Album Ilustratuaren lehen Saria.**

HematoFesti haur literatura eta umorezko jaialdiaren baitan, eta Hematokritikoaren filosofia sustatzeko helburuarekin, bizitza eskuzabaltasunaren, enpatiaren eta umorearen bidez, jaialdiaren antolatzaileek eta Triqueta argitaletxeak **"HUMOR CON H" HAURRENDAKO ALBUM ILUSTRATURAREN LEHEN SARI**rako deialdia egin dute. "Umorezko" haurrendako album ilustratuaren proiektu onenaren egileak 5000 euroko diru-hornidura bakarra jasoko du, oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera.

## **ZER BALDINTZA BETE BEHAR DITUZTE LANEK?**

Umorezko lan originalak eta argitaragabeak baloratuko dira, Espainiar Estatuko edozein hizkuntza ofizialetan eginak eta haurrentzako album ilustratuaren formatuan. Obra argitaragabetzat hartuko dira osorik edo zati batean inolako prozeduraren bidez jakinarazi ez direnak.

## **NORK PARTE HARTU DEZAKE?**

Sarira adinez nagusi diren egile eta ilustratzaileak aurkez daitezke, gehienez ere lan batekin.

## **NOIZ AMAITUKO DA AURKEZTEKO EPEA?**

Lanak aurkezteko epea 2025ko urriaren 1ean amaituko da, eta epaimahaiaren erabakia azaroaren lehen hamabostaldian jakinaraziko da.

## **NOLA AURKEZTU LANA?**

Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek posta elektronikoko bidez aurkeztu beharko dituzte beren lanak:

[humorconh@triquetaverde.com](mailto:humorconh@triquetaverde.com)

### **ZER BIDALI BEHAR DA?**

Parte-hartzaileek testuaren kopia bat bidali beharko dute amaitutako hiru ilustraziorekin eta proiektu osoaren maketa bukatu batekin batera. Maketa hori lelo baten pean aurkeztu beharko da, egileak identifikatzeko inolako daturik gabe. Horrez gain, beste dokumentu bat ere bidali beharko da, proiektuaren egile guztien izen osoa, adina, helbidea, telefonoa, lanaren benetako izenburua eta NANaren kopiarekin. Bi dokumentuak PDF formatuan aurkeztu behar dira.

Lana edozein tamaina, teknika edo formatutan aurkeztu ahal izanen da, beti ere gehienez 40 orrialde baino gehiago ez badira (babesorriak eta azala barne).

### **NORK BALORATUKO DITU AURKEZTUTAKO LANAK?**

Lan irabazlea aukeratzeko, epaimahai profesional eta haur album ilustratua aditu bat osatuko da. Epaimahaiak aurkeztuko diren lanak baloratuko ditu eta saria emanen du, lan osoaren kalitatea, testu eta irudien arteko osotasuna eta umorearen tratamendua kontuan hartuta, lehiaketa honen ardatz nagusia baita. Saria eman gabe utzi ahal izango du, hala baderitzo.

### **ZER DAKAR SARITUTAKO LANA IZATEAK?**

Saritutako lanak eskubideen aurrerakin gisa ezarritako diru-hornidura izango du. TRIQUETA ARGITALETXEAK Estatuaren hizkuntza guztietan (gaztelania, galegoa, katalana eta euskara) argitaratuko du saritutako lana, dagokion argitalpen-kontratuarekin.

**Halaber, HematoFest dela eta, irabazleak saria emateko ekitaldira joateko aukera izanen du. Ekitaldia Vigon egingen da, 2025ko azaroaren lehen hamabostaldian, eta jaialdiaren antolatzaileek aukera emanen diote irabazleari bidaiaren kudeaketa errazteko.**

HUMOR CON H II. Sarian parte hartzeko oinarriak Triqueta Argitaletxearen webgunean ([www.triquetaverde.com](http://www.triquetaverde.com)) kontsultatu ahal izanen dira, baita sare sozialetan ere.

